

«Nafarroa araua da, ez salbuespena»

Azken hiru hamarkaden azterketa kritikoa egin du Aingeru Epaltzak 'Bezperaren bezpera' lanean

ALBERTO BARANDIARAN
Iruñea

ETAren azken su-etenaren garaian hasitako liburua da *Bezperaren bezpera* (Pamiela). Bertan, Aingeru Epaltzak (Iruñea, 1960) Euskal Herriaren azken hiru hamarkaden gaineko begirada subjektiboa pausatu du, galdera batetik abiatuta: «Zer arrazo gertatu zaigu azken 30 urteetan? Zer uste genuen, eta zer gertatu da?».

Kazetari batek idatzitako saiakera da, egileak berak prentsan argitaratutako zutabe eta iritzi lanen berridazketa edo. Horregatik, liburua nika eta guka idatzita dago. «Ez dut zaurian piko egin nahi izan, ez dut krudela izan nahi izan, nahiz eta horretarako aukerak badauden. Errespetu handiz idatzi dut, baina ondorio honetara iristeko: zer gaizki egin ditugun gauzak».

NAFARROAZ, BAINA EZ NAFARRENTZAT. Nafarroaz ari da egilea. Bat eginik kanpaina, Mikel Zabaltzaren he-



Aingeru Epaltza, artxiboko argazki batean. JACOB MANTEROLA/ARCAZI PRESS

riotza, *Diario de Navarra* egunkaria, Juan Cruz Alli politikaria, Nafartheid egitasmo kulturala, Nafarroa Bairen sorrera... Kapitulu kapitulu, eskualdeko bizitza politiko, kultural eta sozialaren protagonistak igarotzen dira irakurlearen begien aurretik. Ardatza aber-
tzaletasuna eta euskaltzaletasuna

dira. Eta tesi nagusia, Nafarroako gizartea ez dela horren berezia. «Askotan esan izan digute gu gara la salbuespena, eta mendealdeko lurraldeak, berriz, araua», azaldu du Epaltzak. «Baina nik alderantziz uste dut. Nafarroa gure metafora handiena dela, ez delakoz salbuespena, araua baizik».

Eta nola amesten genituen gauzak 1977an, bada? «Oso bestela, behintzat, bai», erantzun du idazleak. «Gure inguruan begiratu besterik ez dago, gaur egun zer dugun ikusteko. Eta erraz ondoriozta dezakegu oso urrun gaudela amesten genuen guztitik. Urruntze horrek badu osagai bat: halabeharra, patua, dudarik gabe, hor daude, baina gerok ere egin dugu zer edo zer gaizki. Guk hartutako erabakien ondorioa da gaur egungo egoera».

Liburuaren atzeko azalean, testu argigarriagoa, akaso. «Nafarroa gakoa da, itxuraz, gatazka zorionekoaren konponbidean. Halako karga egozten diote. Halako erantzukizuna ematen. Bai Euskal Herria *eraiki* behar dela uste dute-nek. Bai jo eta ke *deseraikuntzan* ari direnek ere. Liburu honen egileak aspaldi ez du garbi bereizten nor diren batzuk, eta nor bertzeak. Nor etxegileak, nor desagileak. Begietan lausoa, egileak».

«Ezkorra? Ez, ezkorra ez da», azaldu du Epaltzak. «Baikorkeria-
ren kontrako antidotoa, hori bai». Borroka armatuaz, hauxe: «Inork ez dezala pentsa borroka armatua bihar desagertuko balitz bat-batean panorama aldatuko litzatekeela. Belaunaldi batez ordaindu beharko ditugu ondorioak».

Eta ez dela soilik nafarrentzako liburua. Arabari buruz kapitulu oso bat dago, esaterako. «Baina Arabaz mintatzeko beldurra dugu askotan, galdera gehiegi egi-
tera behartzen gaituelako».

Abertzaletasunaz, hauxe: «Dotrina berraztertu beharra dago. Estatuen amets hori, esaterako... Ez ote garen beti gazte patetikoen gisara jokatzeko. Nahi ditugunen eta ahal ditugunen arteko konpromiso bat hartzeko garaia ez ote zaigu iritsi?», galdetu du.

'Histoire du peuple basque' liburua berri du Davantek

XAN AIRE
Baiona

Duela kasik 40 urte, Jean-Louis Davantek Euskal Herriko historiari bere lehen artikulua argitaratu zituen *Enbata* astekarian. Eta, 1970. urtean, *Histoire du Pays Basque* liburua atera zuen, «gorria, kazetaritza militantearen lana». Urteak joan ahala, *Histoire du peuple basque* izenburua hartu zuen liburua, eta hamaika argitalpen izan.

Duela gutxi, hamabigarren edizioa aurkeztu du Davantek. Elkar argitaletxearekin plazaratu du, arraberritua, osatua eta gaurkotua. Euskaldunen jatorriari diren milaka galderarik, gaur egungo egoera arte doa *Histoire du peuple basque*. «Ez da aitzineko argitalpenak baino potoloagoa. Baina jalkitzeak gehitu dizkion. Eta tonu ezberdinarekin idatzia da», azaldu du Davantek. «Adina hartuz bezala, zalantzak, nabardurak ikasten dira. Lehengo edizioetako akatsak eta hutsak zuzendu ditut, eta lana sakonagoa utzi».

Davantek eztabaida luzeetako gaiak eman ditu liburuaren argitalpen berrian. Nafarroako Erresumaz, Frantziako Iraultza ez dela hain anti-euskalduna izan, eta frankismoaren aurkako euskaldunen erresistentzia erran den baino mugatuagoa izan dela. Eta galdera bat: euskal militanteak torturatuak ote dira Espainian? «Objektiboa, neutroa izan naiz lan honetan, baina zintzotasun intelektuala beharrezkoa da horrelako obra batean», azaldu du Davantek. Torturaren galderaren erantzuna 2006ko martxoaren 26ko *Argia*-ren alean dago. Erantzun zientifikoa, mediku bati egindako elkarrizketan.

EUSKAL LITERATURAN OINARRIAK. Euskararen jatorriari buruzko eztabaida ere bota du Davantek *Histoire du peuple basque* obran. «Baina gai honekin, galdera gehiago dau-
de erantzunak baino, euskaldunen jatorriarekin bezala», azpimarratu du idazleak. Ikerketen oinarriak euskal literaturan ere aurkitu dituela dio Davantek. «Baina literatura frankotan ahan-
tzi dute historialariek. Euskaldun gehienek ere ez dakite zer idatzia den euskaraz». Dena den, Eugene eta Manex Goienetxe omendu zituen, bi ikerlarien lanetan ere oinarritu baita Davant.

Azkenean, Davanten lanean gertakari eta xehetasun gehiago daude, eta politik gutxiago. Analisi historikoa, hotzagoa. «Istoria nazionalista izatetik euskal jendearen historia nazionala bilakatu da liburu hau». Eta, Davantentzat, «arintze bat».

BERRIAK gonbidatzen zaitu harpidedunentzat 20 sarrera ditugu



20 sarrera

KIKO
VENENO
& La Banda del Retumbe

Durangoko Plateruena Kafe antzokian,
abenduaren 22an, 22:00etan.

deitu: 943-30 43 45

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**